

FUEROS, VOL. 2, PAG. 165, AÑO 1053". / 3. "DONAC. MON. DE VARRIA (SAN AGUSTIN DE ECHAVARRIA, TERMINO DE ELORRIO)". Los topónimos *Zubero* y *Malax* que se citan unidos por un guión como actual continuador de *Açubarro* —sin la anteposición, por cierto, de la W convenida para los casos dudosos— no son más que los nombres de dos barrios contiguos de Aulestia, y no tienen absolutamente nada que ver con el antiguo nombre de lugar objeto de estudio, si se tiene en cuenta que por su formación no se asemejan al mismo ni a mil leguas de distancia. El primero es comparable al del País de *Zuberoa*, en versión francesa (la) Soule, y el otro lleva en su origen el apelativo *malats* 'fertil (tierra), robusto, etc.', todavía identificable en la forma estratificada. Teniendo en cuenta, además, que yo tengo casa en Aulestia y conozco bien tales lugares, no estoy dispuesto a aceptar semejantes despropósitos.

Desisto de hacer la redacción del análisis de más catas, cuyo resultado sería previsible, si se tiene en cuenta la metodología inadecuada, carente de la más elemental crítica, que se ha seguido, ya que haría interminable esta reseña. Creo que las muestras ofrecidas hablan elocuentemente por sí mismas.

El autor del prólogo, José Angel García de Cortazar, se cura en salud cuando apunta que el trabajo podría recibir duras críticas, porque sus enormes dimensiones lo hacen especialmente vulnerable.

*Alfonso Irigoyen*

Bilbao a 12 de marzo de 1996

KORTA CARRIÓN, KEPA: *Elkarrizketaren eredu baterantz: Asmoa, ekintza, komunikazioa*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Bilbo, 1996. 380 orr.

Liburu gisa argitaratutako doktorego tesi baten aurrean gaude; hain zuzen ere, Kepa Korta irakasleak izenburu berberarekin 1994.ean defendatu zuen idazlana eskaintzen digute EHU-ko Argitalpen Zerbitzuan Doktorego Tesiak argitaratzeko sortutako sail berritik.

Idazlan honen jatorrizko bertsio elebiduna (Euskara-Gaztelania) ingelesez idatzitako 16 orriko laburpen batekin borobilduta aurkitzen dugu, nazioarteko proiektzioa eman nahian.

Erabilitako hizkuntzen arabera hiru zati bereiz ditzakegu liburuan. Guztiak hiru kapitulu banaturik agertzen zaizkigu, ondorio orokorrei dagokien atal batekin amaituz. Zati bakoitza aurretik sarrera batekin irekitzen da eta, erantsitako laburpena ezik, erreferentzi bibliografikoen azpialat batek ixten du. Lehen aipatutako ondorio orokor horietaz gain, kapitulu bakoitzean ateratako ondorio bereziak ere eskaintzen dizkigu egileak doktorego tesien ohiko egiturari eutsiz.

Korta irakasleak sarreran jakinarazten digunez lanaren helburu nagusia elkarrizketaren teoria baterako oinarri kontzeptualak ezartzean datza. Hortarako, Austin, Grice eta Searle-ren tradizioan hizkuntza ekintza gisa hartzen duen ikuspegi filosofikoa abiapuntutzat joz eta esanahia hiztunaren asmoei lotuz, hizkuntzaren komunikazio aldeak aztertzen ditu.

además que "Labayru reprodujo el texto de Fita acompañándolo de algunas notas, principalmente topográficas; otro tanto Ispizua y Balparda", p. 305.

Luis Michelena en *Textos arcaicos vascos*, Madrid 1964, §2.1.6, pp. 30-33, utiliza esta edición crítica haciendo atinadas y sustanciosas observaciones, a quien tampoco se le cita. Y naturalmente tampoco mi *Las lenguas de los vizcainos: Antroponimia y Toponimia medievales*, Bilbao 1985, §19, pp. 25-27, que sigue a ambos.

Lehenengo kapituluaren aipaturako hizkuntzaren filosofiako tradizioaren ikuspegiak duen mugarik nagusia gainditzeko, esatebaterako, indibiduoarenganako arreta eskusiboa, Kortak, elkarrizketa ekintza kolektibo gisa ulertzea eta "ko-akzio" soiletik bereiztea proposatzen du. Kapitulu honen ekarpen garrantzitsua ekintza kolektiboa oinarritzeko "asmo kolektiboa" (asmo indibidualetara erreduziezina) hastapeneko nozio gisa hautatzea da.

Bigarren kapituluaren argi ikusten dugu aurreko bereizketa kontzeptualak elkarrizketaren teoria konputazional batera bideratuta zeudela. Horregatik eztabaida Adimen Artifizialean diskurtsuaren prozesamenduari buruzko ikerketen inguruan kokatzen da. Testuinguru honetan Kortak "plan" kontzeptua proposatzen digu elkarrizketaren analisia asmo ideiarekin kateatzeko. Bide hortatik jarraituz, elkarrizketa planen bitartez eredutzeko orain arte egindako entseien mugak seinatzen dizkigu. Horretarako, Korta irakasleak, berak proposatzen duen asmo kolektibo horren berezitasuna eta, aldi berean, asmo soilak eta komunikazio asmoaren arteko ezberdintasuna defendatuko ditu.

Hirugarren kapituluaren, alde aurretik finkaturakoaren arabera, elkarrizketaren eredu baterako oinarri kontzeptualen lehen lerroak jartzen dira, hain zuzen ere, elkarrizketa asmo kolektiboa, elkarrekiko ustea eta komunikazio asmoaren artean dauden erlazioak deskribatuz. Hemen, elkarrizketaren analisirako behar den egituraren konplexutasun semantikoa nabarmentzen zaigu.

Ateratako ondorioetan argi geratzen den moduan, lan hau ekintza kolektiboaren istudioan emandako lehen urrats gisa uler daiteke. Kortak arlo honetan ematen dizkigun bereizketa kontzeptualak haintzakotzat hartzen baditugu, elkarrizketaren eredu egoki baten konplexutasuna onartzera behartuta gaude. Bestalde, nabarmenki adierazten da liburuan aurkeztutako egituraren aberastasun semantikoak bere eragin zuzena izango duela ia garatu gabe gelditu den ereduaren alde konputazionalen. Horrela, egileak bere lanari jartzen dizkion mugak kontuan izanik, suposa genezake elkarrizketarako eredu konputazional aplikagarrien azterketa sakona bigarren urrats bati dagokiola. Testuan zehar berehala konturatzen gara egileak ardura berezia duela bere lan propioaren eskasiak seinatzen. Gure aldetik, orekaren bila, ondoren azpimarratuko ditugu idazlan honek, besteak beste, azaltzen dizkigun ekarpen batzuek: gaiaren berritasuna eta tratamenduaren orijinaltasuna kontuan hartzekoak dira, baita ere, bereizketa kontzeptualen finezia eta, bestalde, ezin dugu ahaztu goi mailako lan mota hauek euskararen terminologi teknikoaren finkatzeko suposatzen duten aurrerapausua.

Beraz, biziki gomendatzen dugu liburu hau ikuspegi filosofiko batetik ekintzaren teoriarik edo hizkuntzaren komunikazio edota konputazio ezaugarrietan interesaturik dagoen guztia-entzat. Azkenik esateko geratzen zaigun gauza bakarra zera da, atseginez hartzen dugula argitalpen sail honek EHU-n zabaltzen duen bidea.

*Fernando Migura*

ILCLI eta

Logika eta Zientziaren Filosofia Saila

EHU (Gasteiz)

WOLF, MICHAELA: *Hugo Schuchardt Nachlaß. Schlüssel zum Nachlaß des Linguisten und Romanisten Hugo Schuchardt (1842-1927)*. Leykam: Graz 1993. pp. XIX + 635. ISBN 3-7011-0011-X

En 1876 H.S. aceptó la cátedra de Filología Románica en la Universidad de Gratz, ciudad en la que permaneció tras su jubilación (1900) hasta su muerte en 1927. Dejó su villa a la fundación Malvina, fundada por él mismo, su biblioteca privada, a la Universidad de